



Joan den urteko herri bazkariko irudi bat.

Oletako jaiak: 78 urte, eta inoiz baino gazteago

Uda hasierak, jai giroa esan nahi du Oletan. Altzako auzune horretan, lau eguneko festa egitaraua osatzen dute udako solstizioarekin baitan, bizilagunen arteko harremanak sendotu, eta kaleak alaitzeko. Aurten, ekainaren 20tik 24ra ospatuko dituzte San Joan jaiak.

T_Olatz Balda Sagarzazu

A_Sara Ibaguren Etxeberria

Ikasturtea amaitzear da, eta Oletako haurrek ondo baino hobeto dakite zer esan nahi duen horrek: jaiak iris-tear dira. Altzako auzunean, egitarau zabala prestatzen du Oletako jai batzordeak, egun batzuez, bederen, egunero-ko arazoak baztertu, eta lagun eta senide artean gozatzeko parada izaten dezaten bizilagunek: «Bereziak dira gure jaiak, herrikoiak, familia handi baten gisakoak», adierazi du Nekane Santos jai batzordeko kideak.

78 urte bete dituen familia horretan gazte jendea ugaritu da batik bat, azken urteotan. Nolanahi ere, aurten hartu dute «indarra». Lekukoa pasatuta, berri-tasunak ekarri dituzte antolaketara do-zena erdi lagunek, eta buru-belarri aritu dira beteranoekin lanean: «Guk urtero gauza berdinak egin ditugu eta ikuspegi berriekin iritsi dira».

Horrek ere lasaitua eman diela onartu du Santosek: «Jaiak pozik antolatzen di-tugu, jende berriaren beharra zegoen».

Haize berriak, jaietako sua hauspotzeko

Gazteen proposamen berrien artean dago, besteak beste, musika jarduerak errotik aldatzea: «Larunbatean orkestra bat ekartzen genuen, baina gazteek ez zuten oso gustuko».

Orkestrarik gabe, baina, ugaritu egin dituzte jarduera musikatuak aurtengo egitarauan: ostegunean, auzoko musika jaialdia eta karaokea izango dute; osti-ral eta larunbatean, berriz, DJ-ak izan-go dituzte Oleta girotzen.

Iazko arrakasta ikusita, halaber, la-runbateko festa tematikoarekin jarraitu-tuko dute aurten ere. «Hori ere gazteek ekarritakoa da», zehaztu du Santosek. Aurten, 1980ko hamarkadara egingo dute salto.

Aldaketak aldaketa, jaiak beti bezain «herrikoiak» izaten jarraituko dutela adierazi du du jai batzordeko kideak: «Hemen ez dugu puzgarri handirik, eta ez dago dirua gastatzeko jarduerarik. Jolasak dira abiapuntua, eta familian eta lagun artean egotea da helburua».

Txikien antzera aritzen dira helduak ere, eta egun horietan mugikorra «etxean uzteko moduan» izaten dela onartu du: «Bizilagunen artean hobeto elkar ezagu-tzeko aukera ematen digutejaietako jar-duerek, eta guretzat hori da politena».

Egitaraua

EKAINAK 20, OSTEGUNA

18:00etan:

Jaien hasiera txupinazoarekin eta umeentzako jolasak.

Txarangaz girotutako buruhandiak auzoan zehar

19:00etan:

Txokolate jatea.

21:00etan, plazan:

Herri afaria.

22:30ean:

Auzoko musika jaialdia.

23:00etan:

Karaokea.

EKAINAK 21, OSTIRALA

16:30ean, plazan:

Marrazki lehiaketa.
Gaia: 'Oleta eta bere jaiak'.

18:00etan:

Umeentzako jolasak.

Barren herrikoia: pala txapelketako parte hartzaileentzat.

19:30ean:

Finala: Oletako lehenengo pala txapelketa mistoa.

22:00etan, plazan:

Kuadrilla afaria.

22:30ean:

Musika Herra DJ-aren eskutik.

EKAINAK 22, LARUNBATA

11:00etan:

Kultur lantegiaren eskutik, gazteentzako tailerrak.

**13:00etan:**

XIII. Tortilla lehiaketa.

14:00etan:

Herri Bazkaria.

16:00etan:

Mus lehiaketa.

19:00etan:

Sardina jana.

23:00etan:

Festa tematikoa: Ongi etorri 1980ko hamarkadara. Musika Jesus Gil DJ-aren eskutik.

00:45ean:

Dantza lehiaketa.

EKAINAK 23, IGANDEA

08:00etan:

Diana.

11:00etan:

Meza.

12:00etan:

Parrilan egindako pintxoak.

12:30ean:

Toka eta Bote txapelketa.

14:00etan:

Erretiratuentzako luntxa.

16:00etan:

Tute txapelketa.

17:00etan:

Antzerkia, Donostiako Udalaren eskutik.

18:30ean:

Txokolate jatea.

22:30ean:

Musika herrikoia.

23:45ean:

Zezensuzkoa.

00:00etan:

San Joan sua eta festen bukaera.

ZUMARDI
taberna

Gora oletako sanjoanak!

ZUMARDI PASEALEKUA, 22, HERRERA - Tel.: 943-39 37 75